



ZIZURKILGO XV. AZOKA BEREZIA:

11'00-14'30/16'30-19'30

Baserriko produktuak eta artisauak. **Autobusa doan** Bulandegi Bideko errotondatik edo Zubiaurretxotik Zizurkil Goiko Plazara egun guztian zehar.

11'00: "Baserriko Argia" eskulturaren X. urteurreneko ekitaldia.

12'00: Haurrentzat aurpegi margoketa frontoi irekian.

13'00: "Baserriko Argia Saria" Zizurkilgo baserritarren postu onenari eta Kantu-jira.

14'30: Bazkaria Zimiterioan. Txartelak salgai Iriarte, Egarrri eta Atxulondo tabernetan. Prezioa: 18 €.

17'00: Haurrentzat poniak.

18'30: Gipuzkoako II. Giza-proba txapelketako finala. Taldeak: Urretxu, Berrobi, Aiztondo eta Orio.

IKASTAROEN HASIERA :

- ATXULONDO KULTUR EXEAN **urriaren 1ean** hasiko da ikasturtea.
- IRIARTE KULTUR ETXEAN, **urriaren 15ean**.

AKATS ZUZENKETA: Iriarten ematen den HELDUENTZAT GIMNASIA ikastaroa astelehen eta asteazkenetan soilik izango da.

EUSKARA:

DIRULAGUNTZAK

- **EUSKARA IKASTEKO:** aurten ere Zizurkilgo udalak **herrian bertan** euskara ikasi nahi dutenei lagunduko die.
- **AUTOIKASKUNTZARAKO:** Euskara ikasi zure erritmoan, ahal duzunean, loturarik gabe eta etxetik bertatik! Tutore baten gidaritzapean eta mintzapraktikak eginez. **Ezin da errazago jarri!**

Baldintzak: Zizurkilen erroldatua egotea eta %85eko asistentzia ziurtatzea. Matrikularen %75a (gehienez ere, pertsonako 400 €) jasotzeko aukera izango da (*Autoikaskuntzaren kasuan, asistentziaren %85a mintzapraktiken arabera izango da*).

MINTZALAGUNA

Euskaraz hobeto moldatzeko behar dituzunak: astean behin ordubete, ingurune lasai eta giro atsegina, jende berria ezagutzeko gogoia, hiru pertsonako taldeak (bi euskaldun berri eta zahar bat). **Guk lagunduko dizugu!** Urrian zehar izena eman dezakezu.

Informazio gehiago Aurrera Plazako udal bulegoetan eta 943 69 24 95 telefono zenbakian.



MINTZALAGUNA

TEODORO HERNANDORENA XI. IPUIN LEHIAKETA

Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo herritarrek parte hartu ahal izango dute, bost maila ezberdinetan: A Maila: 6-8 urte; B Maila: 9-11 urte; C Maila: 12-13 urte; D Maila: 14-16 urte eta E Maila: 17 urtetik gora. Lan bakoitzaren hiru kopia entregatu beharko dira, **azaroaren 23ko** eguerdiko 14:00ak baino lehen Zizurkilgo Udal Bulegoetan. Oinarriak ere eskuragarri daude bertan.

KZ GUNEA:

- Urriko tutoretza egunak **4 eta 18** izango dira, **9:00etatik 13:00etara**. Itxita 12an, 25ean eta 26ean.

BESTELAKOAK:

- **BIGARREN ESKUKO ELKARTASUN AZOKA:** Intxaur frontoian **urriaren 5, 6 eta 7an**. Jostailuak, arropa, apaingarriak... Denetik erosi eta laguntzeko aukera.
- **"HERRITARRAK ARTISTA" ELKARTASUN ERAKUSKETA:** **urriaren 7tik 14ra ikusgai** Iriarte Kultur Etxean. Ordutegia: astelehenetik ostiralerara 18:00etatik 20:00etara; larunbatean 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta igandean 12:00etatik 14:00etara.
- **2012-10-13: GARAGARDO GAUA** Zizurkil Goian.

